

# Bilboko Haur Kultur Zirkuitua



ikuksi  
eta  
ikasii

txotxongiloak,  
ipuin kontalariak,  
magia, antzerkia...  
2-8 urte

2015eko  
URTARRILA • OTSAILA • MARTXOA



|           | EGUNA                       | LEKUA                         | SAIOA   | ORDUA   |
|-----------|-----------------------------|-------------------------------|---|---|
| URTARRILA | 19                          | Basurtoko udalategia          | Izeba Tekla   | * 18:00   |
|           | 20                          | Begoñako udalategia           | Irrien Lagunak  |  18:00   |
|           | 21                          | Errekaldeko udalategia        | Eriz Magoa  | ☆ 18:00   |
|           | 22                          | Tiboli eskola                 | Jakin eta Jolas   |  18:00   |
|           | 23                          | Abandoko udalategia           | Madiber Magoa   | ☆ 18:00   |
|           | 24                          | Deustuko Bidarte udalategia   | Ana Meabe   |  11:00   |
|           | 26                          | Basurtoko udalategia          | Gurasoentzako Hitzaldia   |  18:00   |
|           | 27                          | Begoñako udalategia           | Sukaldaritza tailerra   |  18:00   |
|           | 28                          | Errekaldeko udalategia        | Sukaldaritza tailerra   |  18:00   |
|           | 29                          | Castaños udalategia           | Sukaldaritza tailerra   |  18:00   |
|           | 30                          | Abandoko udalategia           | Sukaldaritza tailerra   |  18:00   |
| 31        | Deustuko Bidarte udalategia | Sukaldaritza tailerra         |  11:00   |   |
| OTSAILA   | 2                           | Basurtoko udalategia          | Eraikuntza eta sormen tailerra  |  18:00   |
|           | 3                           | Begoñako udalategia           | Puski eta Txurruski   | ∴ 18:00   |
|           | 4                           | Errekaldeko udalategia        | Korri eta Xalto   | ∴ 18:00   |
|           | 5                           | Tiboli eskola                 | Txoborro Magoa  | ☆ 18:00   |
|           | 6                           | Abandoko udalategia           | Apika   |  18:00 |
|           | 7                           | Deustuko Bidarte udalategia   | Bat, bi, hiru... festa!   |  11:00 |
|           | 9                           | Basurtoko udalategia          | Onintze Goitiz  |  18:00 |
|           | 10                          | Begoñako udalategia           | Mozorro tailerra  |  18:00 |
|           | 11                          | Errekaldeko udalategia        | Mozorro tailerra  |  18:00 |
|           | 12                          | Tiboli eskola                 | Behinola  |  18:00 |
|           | 13                          | Abandoko udalategia           | Mozorro tailerra  |  18:00 |
|           | 14                          | Deustuko Bidarte udalategia   | Mozorro tailerra  |  18:00 |
|           | 16                          | Zamakola eskola               | Zirkun Zirko  | ∴ 18:00   |
|           | 17                          | Begoñako udalategia           | Pantzar Teatro  |  18:00 |
|           | 18                          | Errekaldeko udalategia        | Elvi  | * 18:00   |
| 19        | Tiboli eskola               | Rosa Martinezen txotxongiloak |  18:00 |   |
| 20        | Abandoko udalategia         | Musikoterapia tailerra        |  18:00 |   |
| 21        | Deustuko Bidarte udalategia | Kiki eta Koko                 | ∴ 11:00   |   |
| 23        | Zamakola eskola             | Musikoterapia tailerra        |  18:00 |   |
| 24        | Begoñako udalategia         | Musikoterapia tailerra        |  18:00 |   |
| 25        | Errekaldeko udalategia      | Musikoterapia tailerra        |  18:00 |   |

|         | EGUNA | LEKUA                       | SAIOA                          | ORDUA    |
|---------|-------|-----------------------------|--------------------------------|----------|
| OTSAILA | 26    | Bilborock aretoa            | Tor Magoa                      | ☆ 18:00  |
|         | 27    | Karmen aretoa               | Eidabe antzerkia               | 🎭 18:00  |
|         | 28    | Deustuko Bidarte udalategia | Monda eta Lironda              | ⋯ 11:00  |
| MARTXOA | 2     | Zamakola eskola             | Gurasoentzako hitzaldia        | 👥 18:00  |
|         | 3     | Begoñako udalategia         | Maddi eta Antton               | 🎭 18:00  |
|         | 4     | Errekaldeko udalategia      | Galder Perez                   | 💬 18:00  |
|         | 4     | Errekaldeko udalategia      | Gurasoentzako hitzaldia        | 👥 18:00  |
|         | 5     | Bilborock aretoa            | Monda eta Lironda              | ⋯ 18:00  |
|         | 6     | Karmen aretoa               | Potxin eta Patxin              | ⋯ 18:00  |
|         | 7     | Deustuko Bidarte udalategia | Zirtaka antzerki taldea        | 🎭 11:00  |
|         | 10    | Begoñako udalategia         | Eraikuntza eta sormen tailerra | ✂️ 18:00 |
|         | 11    | Errekaldeko udalategia      | Eraikuntza eta sormen tailerra | ✂️ 18:00 |
|         | 12    | Bilborock aretoa            | Imanol Ituíño magoa            | ☆ 18:00  |
|         | 13    | Karmen aretoa               | Kidam Magoa                    | ☆ 18:00  |
|         | 14    | Deustuko Bidarte udalategia | Eraikuntza eta sormen tailerra | ✂️ 11:00 |
|         | 17    | Begoñako udalategia         | Sukaldaritz tailerra           | ✂️ 18:00 |
|         | 20    | Karmen aretoa               | Zirika Zirkus                  | ⋯ 18:00  |
|         | 26    | Bilborock aretoa            | Il Duo Cannelloni              | ⋯ 18:00  |

⋯ ZIRKOA

☆ MAGIA

🎭 DANTZALDIA

✂️ TAILERRA

💬 IPUIN KONTAKETA

👥 GURASOENTZAKO HITZALDIA

🎭 ANTZERKIA

\* BESTELAKOA

👤 TXOTXONGILOA

## AURKIBIDEA / ÍNDICE

Urtarrila / Enero ..... 5-7

Otsaila / Febrero ..... 8-15

Martxoa / Marzo ..... 15-19

Tailer eta hitzaldiak / Talleres y charlas ..... 20-23

# IKUSI ETA IKASI 2015

Hemen da berriro IKUSI ETA IKASI programa, neskato-mutikoek, bai eta gurasoek ere, irrikan itxaroten daben ikuskizun andana.

Pailazoak, antzezleak, magoak eta gainerakoak beroketak egin eta prest dagoz etxeko txikien aurrean jarri eta une gogoangarriak eskaintzeko. Nagusientzat ere tailerrak izango doguz euren zalantzak argitzeko aukera izan daien. Eta ez ahaztu sukaldaritzako tailer zapoetsuak edo mozorro, musikoterapia eta eraikuntza tailer dibertigarriak ere zeinetan seme-alabak gurasoekin batera ondo pasatuko daben!

Ia-ia konturatu gabe, programak hamaika urte bete dauz euskaraz egindako ikuskizunak udalerriko ahalik eta gune gehienetara zabaltzea helburu dauela. Horrela bada, Bilboko udaltegiak eta zenbait ikastetxe prest dira Gabon ostean Ikusi eta Ikasi programari hasiera emateko.

Euskaltzaleen Topagunearen eta Bilboko Udalaren arteko elkarlanari esker, urterik urte IKUSI ETA IKASI hobetzen eta zabaltzen doa, eta aurtengo ikuskizun eta ekintzekaz ondo pasatzea opa deusuegu.

*Ya está aquí IKUSI ETA IKASI, el programa que esperan impacientes los y las pequeñas de casa, sin olvidar a sus madres y padres, y que les ofrece una buena cantidad de buenas actuaciones.*

*Los payasos, actores, magos y los demás participantes están preparados para abrir el telón y ponerse delante de los más pequeños y ofrecerles unos momentos muy entretenidos, y los padres y madres tendrán la oportunidad de aclarar sus dudas con los talleres ¿Cómo ayudarles en las tareas escolares si no sabemos euskera?, sin olvidar los talleres de cocina o de disfraces en los cuales participan los pequeños con los mayores.*

*Sin a penas darnos cuenta, este programa ha cumplido once años, con el objetivo de ampliar la oferta de actuaciones en euskera al mayor número de distritos. Es por eso que los Centros Municipales y algunos centros educativos ya están listos para recibir al programa Ikusi eta Ikasi a partir de estas Navidades.*

*Gracias al trabajo realizado entre Euskaltzaleen Topagunea y el Ayuntamiento de Bilbao, os ofrecemos este programa y esperamos que disfrutéis de todas sus actuaciones y actividades.*



**Sabin Anuzita Pomposo**

*Euskara, Gazteria eta Kirol Saileko zinegotzia  
Concejal del Área de Euskera, Juventud y Deporte*

## \* IZEBATEKLA



Urtarrilaren 19an (astelehena)  
18:00etan  
Basurtuko udaltegia (Zankoeta, 1)

*Piano jolea ez ezik, haurrak eta musika dira ikuskizun honen protagonista nagusiak, euren arteko hartu emana saio osoan zehar sortuz. Haurrak jolasaren bidez iritsiko dira musikara eta musika zein pianoa bera oso modu dibertigarri eta didaktikoan deskubrituko dute. Hainbat jolas izango ditu saioak: bakarkakoak, taldekoak, entzun beharrekoak, arreta lantzekoak... baina elkar errespetatzea ezinbestekoa izango da jolas guztietan. Hori bai, abestuz bukatuko da kontzertua eta haurrak kantuan joango dira etxera.*

Los niños y niñas serán los verdaderos protagonistas de este espectáculo, donde descubrirán el piano y la música a través de juegos tan divertidos como didácticos.

## IRRIEN LAGUNAK

Egin irri



Urtarrilaren 20an (asteartea)  
18:00etan  
Begoñako udaltegia  
(Circo Amateur Club Deportivo, 2)

*Largabista eta Martinbertsori esker, jolasaren bidez aholkuak emateko bestelako modu bat badela ikasiko dugu. Umorea eta parte hartzea bide izanez, euskaratik eta euskaraz, natura osasuntsu egoteko botikarik onenak alaitasuna eta maitasuna direla erakutsiko digute. Irria da ikuskizun honetan ahotik kendu ezin izango dugun keinua!*

Gracias a Largabista y Martinbertso, aprenderemos en un ambiente participativo, que la alegría y el amor son la mejor medicina para que la naturaleza goce de buena salud.

## ☆ ERIZ MAGOA



Urtarrilaren 21ean (asteazkena)  
18:00etan  
Errekaldeko udaltegian  
(Altube zeharkalea, 6)

*Ongi etorri mundu magiko batera, non ilusio eta fantasia apur batekin, dena posiblea den. Magiak eta umoreak bat egiten duten ikuskizun honetan, umeei fantasia eta errealitatearen arteko fusioak sortutako emozioekin gozatzeko aukera izango dute.*

La ilusión, la magia y el humor se unen en el nuevo espectáculo infantil del Mago Eriz.

## 🎭 JAKIN ETA JOLAS Asmakuntzak salgai



Urtarrilaren 22an (osteguna)  
18:00etan  
Tibolin, Epalza Alargunaren ikastetxean  
(Tiboli,5)

*Jolas izeneko zientzialariak denetarik egiten du: abestu, dantzatu, jolastu... baina bere benetako grina asmakuntzetan dago. Oraingoan Benidormeko hondartzara joan da bere asmakuntzak aurkeztera, eta bertan, publikoaren laguntzarekin, bere laborategi sekretuan egindako gauza batzuk erakutsiko dizkigu. Egoera bere aldeko ez izan arren, Jolasek ez du poztasuna galduko. Izan ere, inoiz ez dugu irribarre egitea ahaztu behar!*

El científico Jolas nos presentará sus últimos inventos con la ayuda del público. Y aunque las cosas no siempre le vayan a salir bien, Jolas nunca pierde su sonrisa!

## ☆ MADIBER MAGOA



Urtarrilaren 23an (ostirala)  
18:00etan  
Abandoko udalategian (Barrainkua, 5)

***Etxeko txikienek Madiberren magiaz eta dibertsioaz gozatuko dute ikuskizun honetan. Emanaldi osoan zehar, haurrak protagonista nagusiak izango dira, Madiberren joko dibertigarrietan parte hartuz: Objektuen desagerpenak eta agerpenak, umore ona... umeei zuzendutako magia ikuskizunak dibertigarriak izan daitezkeela ikusiko dute haur zein gurasoek!***

Los divertidos juegos mágicos de Madiber sorprenderán a pequeños y mayores. Desapariciones, apariciones y buen humor para una divertida tarde de magia.

## ♣ ANA MEABE Bazan kalabazan



Urtarrilaren 24an (larunbata)  
11:00etan  
Deustuko Bidarte udalategian  
(Agirre Lehendakaria, 42)

***Kalabaza magikoa gaixo dago oso; eta mendeetan zehar barruan pilatu dituen mundu osoko ipuinak betirako galtzeko arriskuan daude. Aurrerantzean, inork ezin izango luke esan "hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan"!***

***Marilurek kalabaza sendatzeko mandatua jaso du, eta horretarako Kalabaza magikoa dagoen gordeleku sekreturaino joan beharko da.***

La calabaza mágica está enferma y los cuentos de todo el mundo que alberga están en riesgo. Marilur viajará hasta su escondite secreto para poder curarla.

## 🌟 PUSKI ETA TXURRUSKI

Klownmunicatu fest!



Otsailaren 3an (asteartea)

18:00etan

Begoñako udaltegian


(Circo Amateur Club Deportivo, 2)

*DJ Txorizo disko jartzaileak bere emanaldirako bidean arazoak izango ditu eta ezingo da garaiz iritsi. Hala ere, Puski eta Txurruski saltseroek jaia salbatuko dute beraien pailazoen inprobisaziorako senari esker. Giro mundialean dantzatzeko prest?*

Los payasos Puski y Txurruski salvarán la tardía actuación de DJ Txorizo gracias a sus grandes dotes de improvisación y humor.

## 🌟 KORRI ETA XALTO

Dantzan



Otsailaren 4an (asteazkena)

18:00etan

Errekaldeko udaltegian

(Altube zeharkalea, 6)

*Korri eta Xaltoren azken ikuskizunean, euren bigarren diskoko abestiak aurkeztuko dizkigute, bertaratzen diren guztiak dantzan jarritz: haurrak, gurasoak, aiton-amonak eta... erratzak! Barizela daukatenak ere ez dira libratuko.*

En el último espectáculo de Korri y Xalto, nos presentarán las canciones de su segundo disco, poniendo a todo el mundo a bailar!



## ☆ TXOBORRO MAGOA



Otsailaren 5ean (osteguna)

18:00etan

Tibolin, Epalza Alargunaren ikastetxean  
(Tiboli, 5)

*Txoborrok Magiaren eta umorearen arteko sinbiosi hobezina eskaintzen digu, artearen askotariko arloak tartekatzen dituena, arlo horiek denek nola edo hala magiarekin zerikusia dutelarik. Besteak beste, txinatar itzalak, malabarismoa eta globoflexia. Hori guztia, jakina magia tradizionalaren diziplina guztiekin batera doala: kartomagia, hurbileko magia, aretokoa, manipulazioa, etab.*

El Mago Txoborro nos dará a conocer el mundo de la magia mediante sombras chinescas, malabarismo y globoflexia.

## ☞ APIKA Zenbat buru, hainbat aburu



Otsailaren 6an (ostirala)

18:00etan

Abandoko udaltegian (Barrainkua, 5)

*Ipuin saio berezi bat eskainiko digu Apikak, liburuekin ondo pasatzeko eta liburutan dagoen guztia (edo zati bat behintzat) ezagutzeko. Mota guztietako liburuak daude, batzuk txikiak, besteak handiak, hitzik gabekoak, handitzen eta zabaltzen diren liburuak. Bere orrietan, behar dugun guztia eta gehiago aurkituko dugu; abentura, poza, tristezia, barreak eta ustekabeak, besteak beste.*

Apika llega con muchos cuentos en su maleta. Cuentos llenos de aventuras, alegría, tristeza, risas e imprevistos.



## BAT, BI, HIRU...FESTA!

Goazen dantzara



Otsailaren 7an (larunbata)

11:00etan

Deustuko Bidarte udaltegia  
(Agirre Lehendakaria, 42)

*Protagonistak herri txiki batetik etorritako bi pailazo euskaldun dira. Dantza eta festa betidanik asko gustatu izan zaizkie, baina biek bakarrik dantza egitea ez dute gustuko. Horregatik haur, gazte eta helduak dantzatzera eta abestera animatzen dituzte beraiekin batera.*

Dos payasas amantes del baile y la fiesta nos harán disfrutar en familia con divertidas coreografías participativas y canciones populares. Preparaos para bailar!



## ONINTZE GOITIZ

Enaitz pirata ipuinen munduan



Otsailaren 9an (astelehena)

18:00etan

Basurtuko udaltegia (Zankoeta, 1)

*Enaitzek buruan zapi bat lotu, itsasontziko leman jarri eta munduari bira ematen hasi zen. Hilabeteak dira herri ugaritatik oinez, zaldiz eta itsasontziz pasatu dela. Lagun asko egin ditu Hego Ameriketara, Afrikan, Asian... Hamarnaka hizkuntza entzun eta hango ipuinak ikasi ditu. Laster iritsiko da Bizkaiko Golkora eta bere liburuan jasotako amets magikoak hemengo umeekin elkar banatu nahi ditu.*

La pirata Enaitz ha viajado por todo el mundo y pronto llegará al Golfo de Bizkaia para contarnos los sueños mágicos que ha recogido en su libro.



## BEHINOLA

### Amonaren sutondoko ipuinak



Otsailaren 12an (osteguna)

18:00etan

Tibolin, Epalza Alargunaren ikastetxean  
(Tiboli, 5)

*Ipuin kontaketa interaktibo honetan, txotxongiloek, haurrek eta kontalariek batera parte hartuko dute. Amonak sutondoan kontaktutako ipuinak ezagutuko ditugu eta munduko hainbat bazterretara bidaiatuko dugu istorio zoragarriak ezagutzeko.*

*Patxi artzaina, lamiak, eguzkia eta ilargia ezagutzearekin batera, gure irudimena zabalduko dugu. Interpretazioak, txotxongiloek eta musikak bat egiten dute, ipuin kontaketa dinamiko, hezigarri eta dibertigarri honetan.*

En este cuento interactivo todo el mundo participa. La interpretación, los títeres y la música son los protagonistas de este espectáculo dinámico y educativo.

## ZIRKUN ZIRKO

### Tina



Otsailaren 16an (astelehena)

18:00etan

Zamakolan, Juan Delmas ikastetxean  
(Zamakola, 174)

*Tina, bere jabe Rigoberta maltzuraren erruz, gela itxi eta ilun batean bizi den txotxongilo bakartia da. Bere ametsa bizitza itogarri horretatik alde egitea eta munduko haur guztiekin jolastea da, eta bere irudimenari esker lortuko du hori. Umorea, malabararak, monozikloa... ilusio, emozio eta dibertsioz beteriko txotxongilo eta antzerki ikustaldi honetan ez duzue aspertzeko aukerarik izango!*

Humor, malabares, monociclo... no falta de nada en este espectáculo de títeres lleno de ilusión, emoción y diversión, donde no hay lugar para el aburrimiento.

## 🗨 PANTZART TEATRO

Amilami, ipuin kontaketa musikatua



Otsailaren 17an (asteartea)  
18:00etan  
Begoñako udaltegia  
(Circo Amateur Club Deportivo, 2)

*Juan Kruz Igerabideren Amilamiren eleberrian oinarrituta eta tradiziozko kontakizunetatik abiatuta, Bilboko Pantzart konpainiak ipuin-kontaketa honetan, laminek istorioak kontatzen dituz gertaera fantastikoak egungo gizartean kokatuz. Ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka dago istorioaren muinean eta laminek istorioez gain, kontaktaren baitan sehaska-kantak, aho-korapiloak eta instrumentu ezberdinekin egindako musikak txertatzen dira.*

La lucha entre el bien y el mal es el centro de esta historia donde se mezclan canciones de cuna, trabalenguas y música con diferentes instrumentos.

## \* ELVI SABEL HIZTUNA

Nor da panpina?



Otsailaren 18an (asteazkena)  
18:00etan  
Errekaldeko udaltegia  
(Altube zeharkalea, 6)

*Ongi etorri Elvi sabeliztunak gidatutako ikuskizun dibertigarria. Panpinekin batera umorea, magia eta abestiak eskainiko dituz ordubetez. Elviren lagunekin hamaika abentura bizitzeko prest?*

*Mattin ume bihurri eta sasijakintsua, hauren laguntza jasoko duen Sissy ahate euskaldun berria eta Lester, Jazz abeslaria den gorila, izango dira ikuskizun honetako protagonista nagusiak. Eta bukatzeko gutxien espero dugun lekutik bi panpina sortuko dira... Nor da panpina...?*

Humor, magia y música son la base de este entretenido espectáculo, donde disfrutaremos de la presencia de los muñecos Mattin, Sissy y Lester.

## ROSITA MARTINEZ-EN TXOTXONGILOAK Collage



Otsailaren 19an (osteguna)

18:00etan

Tibolin, Epalza Alargunaren ikastetxean  
(Tiboli, 5)

*Giza-balioak eta naturarekiko errespetua bultzatzen dituen ipuin-sorta honetan hitza, ipuina, mugimenduak, soinuak, txotxongiloak eta neska-mutilen berezko fantasia dira protagonista nagusiak.*

*Oraingoan "Printzesa Sagutxo" aurkeztuko dugu. Printzesak ikusiko du bere aita, sagutxoaren erregea, munduko pertsonaia ahalguztidunaren bila joaten, bere alabarekin ezkon dadin. Zatoz txotxongiloekin arratsalde zoragarria pasatzera!*

Los títeres de Rosa Martínez nos contarán cuentos sobre valores como el respeto a la naturaleza, donde la música y la imaginación de niños y niñas serán los protagonistas.

## KIKI ETA KOKO Irriparra barra barra



Otsailaren 21ean (larunbata)

11:00etan

Deustuko Bidarte udaltegian  
(Agirre Lehendakaria, 42)

*Kiki eta Koko pailazoen alaitasunez bete nahi dituzte bazter guztiak. Kontatuko diguten istorioetan lamiak eta zuhaitzak dira protagonista nagusiak. Pailazoen, betiko alaitasunez eta publikoaren partaidetzarekin, euren ametsik handienak egi bihurtzea lortuko dute. Ikuskizunean zehar, giroa gero eta hobea izango da eta azkenean, pailazo, publiko eta elkaturiko guztiek bizipoza ospatuko dute, dantza eginez, irri eta barre artean murgildurik.*

Los payasos Kiki y Koko nos llenarán de alegría en una divertida tarde de baile, risas e increíbles historias de sirenas y árboles.

## ☆ TOR MAGOA

Hator magiara



Otsailaren 26an (osteguna)  
18:00etan  
Bilborock aretoan  
(Mesedeetako kaia, 1)

*Magia emanaldi parte-hartzaile eta dibertigarria dakarkigu Tor magoak oraingoan ere, umore eta sorpresaz beterik hasieratik amaierara.*

El mago Tor nos vuelve a traer un espectáculo de magia lleno de diversión y sorpresas.

## 🦋 EIDABE ANTZERKI TALDEA

Egun berri bat



Otsailaren 27an (ostirala)  
18:00etan  
Bilboko Karmen aretoan  
(Indautxu plaza, z.g.)

*Eli neskato alaia, ameslaria eta ausarta da. Neba galdu ondoren etxetik ihes egingo du bidaia fantastiko baten barrenera. Itsasoan, magiaren unibertsoan, hodeien eta izaren artean bizipoza berreskuratuko du. Irudi poetiko eta magikoen bitartez galera baten ondorioak ezagutuko dira obran zehar.*

Eli es una pequeña soñadora y valiente que se embarca en un viaje tras perder a su hermano. En ese mundo fantástico, de magia y poesía recuperará la alegría que le caracteriza.

## MONDA ETA LIRONDA

Desioak



Otsailaren 28an (larunbata)

11:00etan

Deustuko Bidarte udaltegian  
(Agirre Lehendakaria, 42)

*Monda eta Lironda pailazoek amets asko daukate, baina zein izan daiteke gogokoena? Akaso, txorizo bokata erraldoi bat jatea, ispilu magikoa aurkitzea edota oilo bihurtzea? Gure lagunak gerturatzen diren ume guztiekin primeran pasatzeko prest etorriko dira eta behar bada, amets bat ala beste egi bihurtu ahal izango dute!*

Monda y Lironda tienen grandes sueños como comerse un bocadillo gigante de chorizo, encontrar el espejo mágico o convertirse en una gallina. Lo podrán conseguir?



## MADDI ETA ANTTON

Harrerari buruzko antzerkia



Martxoaren 3an (asteartea)


18:00etan

Begoñako udaltegian  
(Circo Amateur Club Deportivo, 2)

*Maddi eta Antton parke batean aurkituko ditugu eta bertan, Maddik eta Anttonek beren jolas, elkarrizketa eta zalantzen bitartez, harrerako umeen egoera hurbilagotik ezagutzeko aukera emango digute. Ume hauen sentimenduak naturaltasunez tratatuz, harrerako haurrak beste begi batzuek ikusten lagunduko digute.*

Maddi y Antton se juntan en el parque para jugar y charlar sobre sus inquietudes. Abordando con naturalidad los sentimientos, conoceremos de cerca la realidad de los niños y niñas de acogida.

## 🗨 GALDER PEREZ Irripuinak Largabistarekin



Martxoaren 4an (asteazkena)  
18:00etan  
Errekaldeko udaltegian  
(Altube zeharkalea, 6)

*Ipuin antzeztu eta parte hartzailez osatutako ikuskizun berria da Irripuinak. Largabista basozainaren ahotik naturaren sekretuak ezagutuko ditugu. Berak dioen bezala, natura zaintzea eta maitatzea geure burua zaintzea eta maitatzea da.*

*Largabistarekin jolastu eta ikasi nahi baduzu, zain gaituzu! Zatoz!*

Representación formada por cuentos teatralizados y participativos que tratarán de enseñar la importancia de cuidar y amar la naturaleza.

## 🌟 MONDA ETA LIRONDA Hau oparia!



Martxoaren 5ean (osteguna)  
18:00etan  
Bilborock aretoan  
(Mesedeetako kaia, 1)

*Lirondak bere urtebetetzean jasotako opariak Mondari erakutsi eta gero, honek ere oparia egin nahi dio lagunari. Baina hau berezia izango da; Lirondak berak aukeratutakoa: ekologikoa, biologikoa, bertakoa... eta beharrezkoa?*

*Telefono mugikorraren erabilpena, publizitatearen eragina, transgenikoak, ontziak, etiketak eta abar luze bati buruz arituko dira Monda eta Lironda, kontsumoaren munduan murgiltzeko eta hausnartzeko asmoz.*

Lironda quiere hacerle un regalo a Monda; pero quiere que sea ecológico, biológico, ... Reflexionaremos sobre el consumo a la vez que nos divertimos!



## ☼ POTXIN ETA PATXIN Ipar Amerikar indigenak



Martxoaren 6an (ostirala)  
18:00etan  
Bilboko Karmen aretoan  
(Indautxu plaza, z.g.)

*Potxin eta Patxin artistek ipar Ameriketako indiarren kulturaren murgilduko gaituzte euren ohitura ezagunen berri emanez: hizkuntza, dantza, irrintziak, keinuak edota janaria izango dira jolasaren bitartez ikasiko ditugun ezaugarrietako asko. Zatoz eta deskubritu Potxin eta Patxinekin batera indiarren buruzagiak, aztiak, zaldiak, eta beste hainbat pertsonaia!*

Potxin y Patxin nos trasladarán al mundo de los indios americanos. Con sus divertidos juegos conoceremos la lengua, bailes, ritos y otros rasgos de esta cultura milenaria.

## 🦋 ZIRTAKA ANTZERKI TALDEA Urtaroak Vivaldiren begietatik



Martxoaren 7an (larunbata)  
11:00etan  
Deustuko Bidarte udaltegia  
(Agirre Lehendakaria, 42)

*Vivaldi musikagilearen, “Lau Urtaroak” musika lanean oinarritutako antzezlan batekin gatz. Bere lau urtaroei dedikaturiko musikaz baliaturik, argi beltzaz prestaturiko antzezlan aurkeztuko dizuegu. Antzerki beltzaren magia eta musika klasikoaren arteko uztardura egiten dugu antzezlan honetan, haurren ilusioa eta irudimena zabaldu nahian. Izan ere, urtaro bakoitzaren agerpena eta ezaugarriak azalduko dira, beti ere, argi beltzaren teknika erabiliz.*

La magia y la música clásica de Vivaldi se fusionan en este sorprendente y divertido show infantil.

## ☆ IMANOL ITUIÑO MAGOA

Magia parrastan



Martxoaren 12an (osteguna)  
18:00etan  
Bilborock aretoan  
(Mesedeetako kaia, 1)

*Zer da hori, txori bat? hegazkin bat? Superman? Ez! Magia parrastan da! Baina...zer ote da Magia parrastan? Erantzuna oso erraza da: Ikuskizun honetan magia pila bat izango da ikusiko duzuen; horixe baita magia parrastan; magia etengabea! Emanaldi honetan kartek, bolatxoek, sokek, agerpenek eta desagerpenek izango dute protagonismoa. Zatoz ikuskizun parte-hartzaile, dinamiko eta magiko honetara; familia osoak gozatuko du eta!*

Cartas, bolas, cuerdas, desapariciones y apariciones son las protagonistas de este espectáculo participativo y familiar.

## ☆ KIDAM MAGOA



Martxoaren 13an (ostirala)  
18:00etan  
Bilboko Karmen aretoan  
(Indautxu plaza, z.g.)

Baina hori ezinezkoa da! Ezinezkoa dirudi, baina posible da.

*Kidamek bere magia ikuskizun pertsonala aurkezten du! Familia osoarentzako saioa; parte-hartzea, harridura eta umore fina ziurtatzen dituena. Kidamek berrasmatuiko magia joko klasikoak eta orain arte ikusi izan ez diren beste batzuk nahasten ditu magia elegante eta ikusgarrienarekin.*

El mago Kidam nos mezclará con mucha elegancia y grandes dosis de espectáculo los clásicos juegos de magia con los actuales.

## 🌀 ZIRIKA ZIRKUS

### Konpost-eroak



Martxoaren 20an (ostirala)  
18:00etan  
Bilboko Karmen aretoan  
(Indautxu plaza, z.g)

*Konfusok ez daki zaborra bereizten baina ikasteko irrikan dago. Bere bidaian bi lagunekin egingo du topo. Lehenik, Plasti andereño marijakintsua ezagutuko du. Plasti andereñoak eta karton jaunak, bakoitza bere edukiontzian bizi dela, jendeak gaizki bereizi duen zaborra haien artean trukatu dute goizero. Baina Karton nazkatuta dago eta ekintzara pasatu behar dutela uste du, eta gaizki egiten duen hurrengoari errieta egin nahi dio. Plastik orde, jendea berrerabiltzen irakastea nahiago du: Plastik lantegi batera joango gara, konposta egin eta landare bati bizia emanen diogu. Guztia, zirkoa, antzerkia, musika eta maitasuna biltzen duen ikuskizun didaktiko honetan!*

En este divertido y didáctico espectáculo circense los niños y niñas aprenderán de la mano de Plasti y Karton cómo se recicla correctamente, entre risas y buen humor.

## 🌀 IL DUO CANNELONI



Martxoaren 26an (osteguna)  
18:00etan  
Bilborock aretoan  
(Mesedeetako kaia,1)

*Musika jaialdi ospetsu asko irabazi ondoren (hori diote behintzat...) Miki eta Riki zure herriko jaialdira heldu dira bere kanta berriaren soinuaz. Jende artean inspirazio bila arituko dira, eta agian zu izango zara haien musa berria... Edo zu... Argi dagoena da oso ongi pasatuko duzuela!*

Humor, música, bailes y acrobacias son los ingredientes mágicos del nuevo espectáculo del Duo Cannelloni. Una experiencia irreplicable, un plan irrechazable.

## ✂ SEME-ALABEKIN ERREZETA DIBERTIGARRIAK SUKALDATZEKO TAILERRA

Urtarrilaren 27an (asteartea)  
18:00  
Begoñako udaltegian  
(Circo Amateur Club Deportivo, 2)

Urtarrilaren 28an (asteazkena)  
18:00  
Errekaldeko udaltegian  
(Altube zeharkalea, 6)

Urtarrilaren 29an (osteguna)  
18:00  
Castañoseko udaltegian  
(Castaños, 11)

Urtarrilaren 30ean (ostirala)  
18:00  
Abandoko udaltegian  
(Barrainkua, 5)

Urtarrilaren 31n (larunbata)  
11:00  
Deustuko Bidarte udaltegian  
(Agirre Lehendakaria, 42)

Martxoaren 17an (asteartea)  
18:00  
Begoñako udaltegian  
(Circo Amateur Club Deportivo, 2)



**AFORO  
mugatua  
limitado  
30 HAUR**

***Sukaldaritza bide bikaina da hauren ahozkotasuna, sormena, trebezia eta gaitasun komunikatiboak garatzeko. Sukaldari profesional baten laguntzarekin plater entretenigarriak egingo dituzte parte hartzaileek. (Parte hartzeko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net) gunean aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez)***

Las recetas son una herramienta útil en el proceso educativo de nuestros hijos e hijas. Gracias a la ayuda de un cocinero profesional elaboraremos varias recetas en clave lúdica y educativa. (Para participar es obligatorio inscribirse previamente mediante el formulario que encontraréis en la página web [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net))

## ✂ MOZORRO TAILERRA

Otsailaren 10ean (asteartea)  
18:00  
Begoñako udaltegia  
(Circo Amateur Club Deportivo, 2)

Otsailaren 11n (asteazkena)  
18:00  
Errekaldeko udaltegia  
(Altube zeharkalea, 6)

Otsailaren 13an (ostirala)  
18:00  
Abandoko udaltegia  
(Barrainkua,5)

Otsailaren 14an (larunbata)  
11:00  
Deustuko Bidarte udaltegia  
(Agirre Lehendakaria, 42)



*Haur eta gurasoek elkarrekin mozorro bat sortzeko aukera izango dute. Pausuz pausu baten arropa eta osagarriak diseinatuko ditugu, giro alai eta musikatu batean. (Parte hartzeko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net) gunean aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez)*

Crearemos junto a nuestros hijos e hijas un disfraz para estos carnavales paso a paso. (Para participar es obligatorio inscribirse previamente mediante el formulario que encontraréis en la página web [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net))

**AFORO  
mugatua  
limitado  
30 HAUR**

## ✂ MUSIKOTERAPIA

Otsailaren 20an (ostirala)

18:00

Abandoko udaltegian  
(Barrainkua,5)

Otsailaren 23an (astelehena)

18:00

Zamakolan, Juan Delmas ikastetxean  
(Zamakola, 174)

Otsailaren 24an (asteartea)

18:00

Begoñako udaltegian  
(Circo Amateur Club Deportivo, 2)

Otsailaren 25ean (asteazkena)

18:00

Errekaldeko udaltegian  
(Altube zeharkalea, 6)



**AFORO  
mugatua  
limitado  
20 HAUR**

*Ikusi eta Ikasi programaren azken nobedadea musikoterapia tailerra da. Baina, zer da musikoterapia? Tresna pedagogiko, ludiko eta entretenigarria da. Musikoterapeuta profesional baten laguntzaz, guraso eta haurren artean musika eta euskararen bidez giza harremanak sustatuko ditugu. (Parte hartzeko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net) gunean aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez)*

El taller de musicoterapia es una novedad en el programa Ikusi eta Ikasi. Con la ayuda de una musicoterapeuta profesional, toda la familia podrá disfrutar de esta experiencia, diferente, pedagógica y entretenida.

(Para participar es obligatorio inscribirse previamente mediante el formulario que encontraréis en la página web [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net))

## ✂ ERAIKUNTZA ETA SORMENA

Otsailaren 2an (astelehena)

18:00

Basurtuko udaltegian  
(Zankoeta, 1)

Martxoaren 10ean (asteartea)

18:00

Begoñako udaltegian  
(Circo Amateur Club Deportivo, 2)

Martxoaren 11n (asteazkena)

18:00

Errekaldeko udaltegian (Altube zeharkalea, 6)

Martxoaren 14an (larunbata)

11:00

Deustuko Bidarte udaltegian  
(Agirre Lehendakaria, 42)



*Eraikuntzaren bitartez sormen gaitasuna garatuko da familia giroan. Umeek eta hauen senideek eraikuntza eta jostailu ikusgarriak sortuko dituzte kartoizko kutxekin, giro dibertigarrian. (Parte hartzeko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net) gunean aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez)*

Construiremos formas y objetos utilizando cajas de cartón, estimulando la creatividad en familia. (Para participar es obligatorio inscribirse previamente mediante el formulario que encontraréis en la página web [www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net))

**AFORO  
mugatua  
limitado  
30 HAUR**



# Bilbao

UDALA  
AYUNTAMIENTO



euskaltzaleen  
topagunea



Zure seme-alabekin  
**euskaraz**  
disfrutatzeko baliabideak sarean

**Ikusi eta ikasi bloga**



Aholkuak, eskulanak, bideoak, esteka  
interesgarriak, elkarrizketak, zozketak....  
Hori guztia eta gehiago hemen:  
**[www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net)**